


# BERRIGARA

° 27 zenbakia

Jardun elkartea, Bergara


1991, uztailak 5




**Gidarien  
zaindari**



**Manu Muniategi:**  
Noveles saria  
irabazi du.



**Alkatea:**  
gaur ostiralean  
izendatzen dute.



**Motorrak:**  
Bideluze eta Elizburu  
bikain.

BANCO

LOIOLA'91 BANKU OFIZIALA

**B** Guipuzcoano



## *Nahikari*

**Luis Jose Yanizen**

pintura  
erakusketa

"Nire ustez nire lanaren  
baliorik haundiena neure-  
neurea den estiloa sortu izatean  
dago".

Mahasterreka 20, Tfnoa: 76 57 71

## ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak. **Taberna**  
Eguneko menua daukagu.

Zubiaurre 22,

Tfnoa: 76 20 19


BERGARA

## IBARGUREN PENTSUAK

" BIONA " PENTSUEN BILTEGIA, " BIOTER "  
PRODUKTOAK ETA HAZIAK

SAN PEDRO 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

**MEMESA**



**SKF**




Arrasate 79 42 22

Artxabaleta

# MABER

## GIMNASIA-ETXEA



Kulturismoa

Mantenimendu gimnasia eta  
zuzenketazkoa

Edozein kirol egiteko pisu-sistema  
egokiak

Sasoian egoteko behar dituzun  
makina eta pisu mota guztiak

### URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA!

Zuzendaritza: MARTIN BERROYA EGAÑA  
(Euskadiko kulturismo txapelduna)

Koldo Elizalde 16, Behea

Tfnoa: 76 56 17

BERGARA

# BONOFOTOA


**BERRIGARA**

*Jardun Elkartea*

1991, uztailak 5



M. A. Elkorberizibar



## **Karmelo San Torcuato**

Arrazioa zuen Jose Luisek, gure aurreko bonofotoaren erantzun zuzena Mou (Moiua) Torrea zen.

Jende askok hartu zuen parte oraingoan ere, eta zozketaren orduan 10.000 pzt.a.k Karmelorentzat izan ziren.  
Zorionak!

Eta besteok, badakizue; segi jolasten, aukera berriak dituzue zain!


**Zein da baserri honen izena?**

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfonoa: \_\_\_\_\_

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen: **BERRIGARA**  
**Errotalde Jauregia**  
**20.570 Bergara**

**Oharra:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, saria hurrengo  
BONOFOTOOrako gordeko litzateke, FOTOPOTEAN

# GIARTZU



## GIMNASIOA

BONI LASKURAIN 3, ETXABEA

Tfnoa: 76 35 71

BERGARA

# BERGARAKO AZOKA

<p><b>JUANITA MORENO</b></p> <p><b>Arraindegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 12 54 Azoka: 76 02 44</p>	<p><b>GABILONDO</b></p> <p><b>Harategia</b></p> <p>Azoka: 76 26 98 Etxekoa: 76 26 53</p>	<p><b>JANARI</b></p> <p><b>FRESKOAK</b></p> <p><b>AUKERATUAK</b></p>	<p><b>LURDES</b></p> <p><b>Harategia</b></p> <p>Esneko Moxala</p> <p>Tfnoa: 76 12 17</p>	<p><b>IZOTZ</b></p> <p><b>Konjelatuak</b></p> <p><b>Errefrijeratuak</b></p> <p><b>Marskoa</b></p> <p>Tfnoa: 76 56 91</p>
<p><b>MERTXE</b></p> <p><b>Oilaskoak Urdaitegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 54 67</p>	<p><b>YANIRE</b></p> <p><b>Frutadenda</b></p> <p>Tfnoa: 76 52 34</p>	<p><b>LA BERMEANA</b></p> <p><b>Arraindegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 15 16 Etxekoa: 76 00 48</p>	<p><b>PATRI</b></p> <p><b>Harategia Txemikitegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 02 20</p>	<p><b>PRIMI</b></p> <p><b>Arraindegia</b></p> <p>Azoka: 76 15 90 Poligonokoa: 76 21 91 S. Antonikoa: 76 21 08</p>

# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara  
Tfnoa: 760397

**Laguntzailea:** Bergarako Udala

**Zuzendaria:**

Miguel Angel Elkoroberezibar

**Erredakzioa:**

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil

**Maketazioa:**

Edure Arenaza

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Ignazio Irigoien, Edure Arenaza  
Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan  
Martin Elexpuru

**Kolaboratzaileak:** J. Oregi, A.

Urzelai, Mariipi Laskurain, Olaia Inza,  
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel  
Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel  
Elkoroberezibar, Josune Iñarra eta  
Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga  
eta Ainhoa Bikuña

**Argazki laborategia:** A. Gallastegi,

B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza,  
J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.  
Tabares, Txomin Retolaza, Kifitu eta  
Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak** Josu Okina  
eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

**Tirada:** 2.500 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta eri-  
tzien erantzunkizunik.



## 5 OSTIRALA

- Zinea: "No sin mi hija", 10.30etan.
- Erakusketak:
- Nahikarin Luis Jose Yanizen pintura erakusketa.
- Kontzertuak:
- Zumarragan, frontoian: *Su Ta Gar eta Josi y los Javis* 10etan.
- Pelota Elgetan: Gaueko 9.30etan
- Gazte aurrekoetan: Bera-sategi/Plazaola
- 23 urtez azpikoetan: Beloki/Arroitajauregi
- Goardiako farmazia: Guallar (San Antonion)

## 6 LARUNBATA

- Zinea: " No sin mi hija" 10.30etan,
- Kontzertuak:
- Elorrión Plazan *Tapia eta*

Leturia gaueko 21etan.

- Aretxabaletan *La Jesses James Band* 10.30etan.
- Arrasaten Monterron parkean *Soziedad Alkoholika, Maloña eta Eskoriatza* Gaueko 10etan.
- Pelota Elgetan: Gaueko 10etan
- 23 urtez azpikoetan: Ba-lerdi/Nagore
- Goardiako farmazia: Estella (Matxiategin)

## 7 IGANDEA

- Zinea: "No sin mi hija" , 7.30etan eta 10.30etan.
- Ogia :Ogizun Okindegia (San Pedron)
- Goardiako farmazia: Estella (Matxiategin)

## 8 ASTELEHENA

- Zinea: "No sin mi hija" 7.15 etan.
- Goardiako farmazia: Mozos (San Pedroni)

## 9 ASTEARTEA

- San Kristobal jaiak:
- Gaueko 11etan ohizko pinu jartzea eta gero gazteentzako txokolatada.
- Goardiako farmazia: Camacho (Oxirondo Enparantza)

## 10 ASTEAZKENA

- San Kristibol jaiak:
- 12etan Meza Nagusia eta ondoren kotxeen bedeinkapena.
- Gaueko 10.30etan *Tapia eta Leturia*.
- Goardiako farmazia: Puy (Barrenkalen)

## 11 OSTEKUNA

- Goardiako farmazia: Guallar (San Antonion)

## Aukeran...

San Kristobal jaiak:  
• *Tapia eta Leturia*.

Igerilekuak zabalik.

**ZUNBELTZ**  
**Kafetegia**

S. Arrieta Enparantza  
**BERGARA**

**ELADIO**  
**OINETAKOAK**

Oinetako konponketa

MATXIATEGI 2,

Tfnoa: 76 54 60

BERGARA





**IGARZA**  
**Merzeria Lenzeria**  
 Udarako bainujantziak  
 Irala 5 Tfnoa 76 24 88

Gizon Emakume  
  
 Irala 2/ Barrenkale 35  
**BERGARA**

**ONENA**  
**TINDATEGIA**  
 BARRENKALE 29 BERGARA

**ORTZI**  
**Erretegia**  
 ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

Aste bete pasa da San Martzialgo jaiak izan zirenetik eta oraindik gogoan dauzkagu jai horren inguruan komentatu nahi genituzkeen detaile batzuk.

Ia ziurtasun osoz esan genezake "San Martzialgo jaiak" entzuterakoan danok imajinatzen dugula jende guztiak nahi adina edanda, primeran pasatzen duen egun bat dela. Gai honi buruz sakontzen hasiko bagina badakigu mila "matiz" desberdin azalduko liratekeela: "ez dela hori bakarrik", "danok ez dutela nahi adina edaten",...

Baina ikuspegien azterketa alde batera lagata, goazen ikustera praktikan zer gertatzen den: egun honetan, jende guztiak onartzen du alkohol mordoa (gehiegi bada ere berdin) edatea. Eta horrekin gustora gelditu gabe, gehiegizko kontsumo hori justifikatu nahi dute, bai helduetan eta bai gazteetan, eta halakoak esaten dituzte: "urtean zehar egun bat da", "ohitura da" (ikus beharko litzateke ea zer dan ohizkoa: gehiegizko kontsumoa, edo jai horretan egiten diren jolasak, edo kuadrilen arteko harremanak, edo...). Ematen zaion tratamenduak indartu egiten du jendearen jokaera kontsumoaren aurrean eta oso normaltzat hartzen da egun horretan eta halako jaietan jokaera hori segitzea.

Bueno, jendeak kontsumoaren aurrean daukan jokaera aipatzeaz gain, horri egiten zaion promozio eta horren eskaintzak ere komentatu nahi genituzke.

Zentzu honetan komunikabideekin topo egiten dugu jai hauek aipatzerakoan mila eratan, bai idatziz bai imajinen bidez alkoholaren kontsumoan ipintzen dute indarra, jaietako beste aspektu batzuk alde batera lagata ( jendearen parte hartzea ekitza desberdinetan etab.).

Bestalde kontsumoaren promozioaren barruan aurten beste berezitasun bat aurkitzen dugu. Hau da "Kilometroak 91" bere produktuen artean ardo berezi bat etara du eta herritarrei lana errazteko eurok prestatu ziren kamiokada bat ardo bertara eramateko (horretan utziko dut, gehiago aztertu gabe, San Martzialgo jaiari buruz ari garelako, baina uste dut garrantzia handia daukala produktu hori ikastetxe bateko gelan saltzeak ere).

Udalaren "laguntza" ere aipatu egingo dugu, izan ere urtero bezala aurten ere barrika bat ardo igo bait du (aurrekoen antzera, jendeari lana errazteko edo...).


Bueno, San Martzial jaien inguruan dauden zenbait punturen aipamen azkar hau egin ondoren, bukatuko dugu esanez halako ohituren, iritzi eta abarren aurrean ez larritzeko ez eta harritu beste jai batzuetan, Santo Tomas egunean adibidez, gazteak protagonista direnean (euron jaia bait da), alkoholaren kontsumoak halako indarra baldin badu zeren eta azken batean irakasle onak dauzkagun froga besterik ez da, eta normaltzat hartu beharko genuke gazteek hain azkar eta hain ondo ikastea aipatutako ohitura hori.

*Drogomenpekotasunen prebentziorako batzordea.*

**Tiiira ba!**

**Josu Okina**





### Igarilekuak biharko prest

Aspaldi honetan zeresan ugari eman duten kanpoko pizinak badirudi azkenik bihar larunbata zabalduko direla.


Asteazkenean urez betetzen hasi ziren eta orain Iberduerok argindarra bertara sartzea baino ez da geratzen. Horrez gain, Gregorio Iruretagoiena igarilekuetako arduradunak oraindik gaur amaitzekeuden erremate batzuk biharko burutzea espero zuen, hala nola dutxak martxan jarri edota azken hilabeteotako obrek utzi dituzten *arrastoak* garbitu.

Beraz, asteburu honetan eguraldi ona egiten badu, badakizue... Uretara!



### Udalekuak martxan

Udaletxeak eta Txintxerrina Elkarteak 3 urtetik 12ra bitarteko haurrentzat udaleku irekiak antolatu dituzte aurten ere. Uztail osoan zehar 200 haur inguruk hogeitaz begirale eta bi monitore gazteen laguntzaz era guztietako jolasak edota herrian bertan irteera interesgarriak egiteko aukera izango dute. Eguraldiaren arabera, goizero *eskapadaren* bat egin eta astelehenean San Ferminak herriko kaleetan zelebratzeko prest daudela esan ziguten... Adi beraz!



### Olinpiadak 91

Bergararrok, dirudienez, katalanen aurretik gabiltza, jadanik martxan baitago Bergarako Olinpiada Batzordeak (BOB) antolatzen duen II. Olinpiada Herrikoia. Joan zen astelehenean uztailearen 20ra bitartean Olinpiada honetan parte hartzen duten 19 taldeek txapelketa ezberdinetako *urrezko dominen* bila jardungo dute, joku garbia eta umore ona ezinbestekoak izango direlarik. Antolatzaileek koadrilèn arteko harremanak bultzatu eta, era berean, kirola herriko kaleetara ateratzea baino ez dute bilatzen.

Horretarako, kirol *arruntez* gain, kaskara jokuak, waterpoloa edota mahai jokuak prestatu dituzte. Bukaera bezala, 20an finalak Samartzialen jokatu dira eta, apuntatzen den jendearen arabera, herri bazkaria egingo da bertan *klausura zeremonia* modura.

#### ☐ Lan istripua

Ekainaren 11n izan zuen lan istripuan jasandako zauri larriengatik, joan den larunbatean Luis Santamaria Peña, Altos Hornoseko langilea, Gasteizko Santiago Eritetxean hil zen. Luis 8 m.-ko altura batetik jausi zen labe bat garbitzen ari zela. Goian bego.

#### ☐ Urisabel

Jon Andoni Urisabel margolari bergararrak *Eibar Hiria* izeneko pintura sari berezia irabazi zuen joan zen igandean Eibarren. Lehiaketa honen XIV. edizioa 46 artista aurkeztu ziren eta lan guztiak bihar arte Errebal Kaleko Kontserbatorioan ikusgai dituzue 7etatik zortzi t'erdietara.

## HALTZARI

Fagor altzarien  
banatzailea.

Sukalderako altzariak

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57 BERGARA

## MAHER

BILTEGIAK L. E.  
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29. Tfnoa: 76 22 90  
BERGARA 76 26 75

## ETXAGI

Afariak  
Bazkariak  
Gosariak  
Bataioak  
Jaunartzeak  
Eguneko menua

JATETXEA

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

**□ Informatika**

Bergarako IMIk Open Access-eko ikastaroa antolatu du urriako lehen asterako. Hogei orduko ikastaro honetan interesaturik zaudetenok hilabete lehenago korreoz edo fax-ez Bilboko IMIra jo beharko duzue.


**□ San Kristobal**

Asteazkenean, San Kristobal egunean, eguardiko 12etan Meza Nagusia izango da auzo horretako ermitan. Ondoren, nahi dutenek beraien kotxeak bedeinkatzeko aukera izango dute.



**Orfeoiaren kontzertua**

Nahiko jende bildu zen joan zen ostiralean Seminarioan Orfeoiak eskainitako kontzertua entzuteko. Orfeoiak, besteak beste, Orlando di Lasso, Brahms edota Standforden pieza erromantikoak, Aita Donostiarenak...etab. luze baten piezak abestu zituen. Era berean, aurten Mozarten jaiotzaren bigarren mendeurrena ospatzen denez, Orfeoiak musikagile paregabe horren *Ave veruma* kantatu zuen. Musika koralean, eta batez ere *kapelan* kantaturikoan gertatzen ohi den bezala, kontzertua laburra izan zen baina Orfeoiak pozik utzi zuen Seminarioa hurbildutako jendea.



**Victoriano alkate**

Gaur eguardian alkate berria aukeratzeko Udaletxean egindako Plenoan, EAJk gehiengo absolutoa lortu du EE eta PSOEren laguntza jasotzean eta beraz Victoriano Gallastegi dugu Bergarako alkate berria. Euskal Auzitegi Gorenak asteartean baliorik gabe utzi zuen Herri Batasunak, hauteskundeen ondoren, EAJren zinegotzien aukeraketaren aurka jarritako errekurtsioa; Herri Batasunak irregulartzat jo zituen jeltzaleek maiatzaren 26an erabilitako botu-paperak. Auzitegiak errekurtsioa bertan behera uztean, orduko emaitzak mantentzen dira eta beraz EAJk zazpi zinegotzi mantentzen ditu, Herri Batasunak sei, Eusko Alkartasunak bi eta EEK eta PSOEek zinegotzi bana lortzen dute. Gaurkoan HBK eta EAK beraien zerrenda buruei botatu diete, EAren kasuan Diputazioan eta Donostiako alkatearen aukeraketan EAJrekin izandako tirabirak direla medio. Era honetan, udal oposizioa HBko sei zinegotziek eta EAKo beste biek eramango dute aurrera.


**Elkoro bertan**

Gultzurruneko infekzio baten erruz Diputatu Nagusiaren aukeraketan izan ez arren, Jose Luis Elkorok parte hartu ahal izan du gaurko Plenoan. Bestalde, azken zortzi urtetan EAJko zinegotzia izan den Gregorio Muruamendi araz orain gutxi bihotzetik operatu dute eta ezin izan du gaur Udaletxean egon.

**A. ZANGITU**

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA  
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE



**ETXEBERRIA**

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA

**ERREKI**

**Erretegia**

**Berezitasunak :  
Bixigua eta txuletak.**

Fraiskozuri Enparantza  
Tfnoa: 76 38 51



**GAZTELY S. A.**


**BURDINDEGIA**

MINTEGI 1

Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50

BERGARA





## Samartzialak jendez gainezka

Milaka bergarar bildu ziren aurten ere Samartzialgo zelaietan gure herriak duen jairik arrakastatsuen ospatzeko asmoz. Eguraldia izan genuen protagonista nagusia aurtengoan; eguzkiak ere jaiari parte hartu nahi izan zuen eta temperaturak, giroarekin batera, gora egin zuen egunak aurrera joan ahala. Goizeko dantza eta bertso saioen ondoren koadrila eta familia ezberdinak bapoz bazkalduta eta arratsaldean jokatu izan ziren; txingak jokuan Medina bergararrak irabazi zuen. Sokatiran, emakumezkoetan, Txorixo koadrilak Onenak koadrilari irabazi zion eta gizonezkoetan berriz, Osintxukoak indartsuenak izan genituen aurten ere finalean Oxirondoak gaitzitu ondoren. Zazpirak aldera etxalero jaurtiketak jeitsiera iragarri eta gehienek urez bustirik amaitu zuten, ez udako txaparrada baten erruz, jendeak balkeiatatik botatzen zuen uragatik baizik. Jendeak jeitsiera horretan *marxa* hartu eta juerga gauean zehar ere luzatu zen.

## Omenaldia

Bestalde, aurtengoan jadanik 25 urtetan Samartzialgo giroa alaitzen jardun duten Joxe eta Migel Urteaga Zumarragako trikitilariari omenalditxo bat eskeini zien Udalak. Soinujole bikote honek oroigarri bana jaso zuen eta bergararrek ere txaloaldi luze batez eskertu zieten azken 25 urtetan egindako lan bikaina.

## □ Zinea Usondon

Kultura Batzordeak antolatuta, bart gauean izan zen uztailean izango diren zine emanaldien *estrainaldia* Usondon. Hil honen 18an eta 24an *Francesco* eta *Dersu Uzala* filmak ikusi ahal izango dira Usondon eta Santanan.

## □ Institutoa

Ekainean dena onartu dutenez 91-92 ikasturterako matrikula egiteko epea uztailean 12an amaitzen da. Asignaturaren bat suspentitu dutenak berriz, irailaren 6tik 12ra bitartean matrikulatu beharko dira.



## Hori bai poza!

Emaizta benetan onak lortu dituzte selektibitateko azterketara aurkeztu ziren Batxillergo Institutoko ikasleek.

Orain bi aste azterketa hori egin ahal izan zuten 78 ikasleetatik 4k bakarrik suspenditu dute. Lau horiek ekainean azterketa egin ezinik geratu diren 82 ikasleekin batera beste aukera bat izango dute iraileko konbokatorian.


Iaz bezala, aurten ere ia ikasleen erdia selektibitateko egiteko geratu da eta azterketan berriz, oso *penko* gutxi izan da. Argazkikoek pozik egoteko motiboa badute behintzat...



# VID-ART

Bidriera artistikoak

Belanbide z/g. BERGARA



**Erakusketa:**  
Astelchenetik Ostiralera, 11 - 3 eta 17 - 20  
Larunbatetan 11 - 3

BIDRIERAK - MURALAK - ISPILUAK  
KRISTAL BISELATUZKO ATEAK - etab.

## BIDRIERA ARTISTIKOEN 1.ERAKUSKETA IRAUNKORRA

## FABRIKAKO PREZIOAK DITUGU

Azal eiguzu zure ideia  
VID-ARTEk egingo dizu.

**Enkarguak eta abisuak:**  
Tfnoa: 76 23 30 - 76 41 54  
Fax: 76 41 54 ( Bulego orduetan )  
9 - 14 eta 16 - 20

# Manu

## Muniategiandikoetxea:

### "Itxita nituen ateak irekitzen zaizkit"

Manu Muniategiandikoetxea, 25 urte, ia bizitza guztia pinturari emana. Bergarako margolari tradizioaren adierazle berria. Zazpi urterekin ekin zion margotzeari eta harrezkero hainbat sari jaso ditu han eta hemen. Azkena, Kutxak artista gazteentzat urtero antolatzen duen "Noveles" lehiaketan. Orain dela aste batzuk Bizkaiko Diputazioak antolaturiko Bizkaiko Artea lehiaketako hirugarren saria ere jaso zuen. Urteetan ixilean lan egin ondoren merezitako errekonozimendua iritsi zaio.

□ Zer suposatzen du zuretzako sari honek?

Alde batetik urteetako lanaren errekonozimendua, azken urte hauetan urri xamar ibili bait naiz sari aldetik. Lehiaketarik ez baduzu irabazten, lanik ez duzula egiten pentsatzen du jendeak. Bestalde, ia derrigorrezkoa da Gipuzkoako margolarientzat *Noveles* irabaztea, nolabaiteko filtroa. Sari honekin eta Bizkaiko Artea lehiaketan lortutako hirugarren postuarekin, orainarte itxita nituen ateak irekitzen zaizkit.

□ Azkenaldi honetan gainera, pixkat ahaztuta zeunden, jendeak zure arrastorik ez zuen...

Horrela da, batez ere Bergaran. Orain Bilbon bizi naiz eta han egiten dut lan, Bergaran ez dut lanik erakutsi aspaldian. Jendeak ez dakiena

zera da, urteak daramazkidalako konkurtsoetara lanak aurkezten. Askok gora begira egon naizela uste du, ez dudala ezer egin eta hori ez da horrela.

□ Bergarako pintoreekin harremanik baduzu?

Harreman pertsonalak batez ere. Bingen De Pedro eta Riki Azkargotarekin askotan egoten naiz, baina herrian ez dut pintatzen. Fakultateko lagunekin harreman estuagoak ditut, Bilbon egiten bait dut lan.

□ Artista bergararrak elkarre bat osatzekotan dabilte. Zu zeu sartuko zinateke?

Idea ona dela pentsatzen dut. Oso interesgarria da eta beharrezkoa gainera, geure arazoei aurre egiteko. Ni zuzenean ikutzen ez banau ere, Bergaran ganorazko es-

tudio baten beharra argi ikusten dut. Gartzela zaharrean sartu nahi dutela entzun dut eta ez dakit tokirik proposena den. Udalaren eta pintoreen interesak ezberdi-



nak dira. Dirua ematen duenak intentzio onak izan arren, sarritan ez daki zertan ari den. Kartzelarekin etxe historiko bat errekuperatu nahi dute, baina artistek bere lana sortu


dezaten, industria pabiloi bat egokiagoa dela uste dut.

□ Pinturatik bizitzea pentsatu al duzu?

Hemendik bizi ahal izateko egun osoa eman behar duzu lan honetan. Kontzentrazio handia eskatzen du. Egokiena Arte Ederretako Fakultatean irakastea izango litzateke, beti ere artista berriekin harremanetan zaudelako. Bestalde zure lana galerietaruntz enfokatzeko baduzu, bertan geratzeko arriskua daukazu, zure sormena mugatzen duzu, estankaturik gera zaitezke.

□ Nola definituko zenuke zure pintura?

Hitz batekin definitzea ez da batere erraza. Garai ezberdinak izan ditut: orain *collagea* asko erabiltzen dut, koadroa zatika egiten dut. Normalean bi fasetan: lehe-



Manu saritua gertatu zen koadroarekin

Beheko

Taberna

MENESTRA ETA KONEJOA  
DIRA GURE BEREZITASUNAK  
ANGIOZAR Tfna: 76 55 74

GOIERRI

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Enparantza, 5  
BERGARA

Tfnoa: 76 41 50



hartu gabe, gutxiengo baten-tzako artea. Gero Pop-Art delakoa, herritarragoa da, urbanoagoa, jendearengandik hurbilago dago.

Baina normalean gehien-goak ez du artea ulertzen, informaziorik ez duelako. Bergararrak inpresionismoa bakarrik baloratzen du, besterik ezagutzen ez duelako. Simon Arrietak egindakoa hartzen du erreferentziatzat. Bere bizitza guztian txistu soinua bakarrik entzun duen norbaiti, jazza ematen badi-ozu, seguruen ez zaio gusta-tuko ez duelako ezagutuko, beste erreferentzia batzuk i-zango dituelako. Musika edo arte munduan murgildurik dagoen norbaitek, aldiz, eritzi bat izan beharko luke.

□ **Orduan zergatik e-rosten da artea?**

Dekorazio kontua ere tartean dago. Gero badaude gazte asko arteari zentzu merkantilista ematen diotenak, artea inbertsio moduan neurtzen dutenak, badakite-lako orain erositako koadro batek urte batzutara askoz gehiago balioko duela.

□ **Okinak izandako a-rrakasta nola baloratzen duzu?**

Argi dago Bergaran Si-mon Arrietak sotu zuen es-kolak, margolari askorengan eragin handia izan duela. Ez hori bakarrik, lehen esan dudan bezala, jendearen gustoa ere baldintzatu du. O-kina, Juaristi, Loidi..., guzti horiek Simon Arrietaren ja-

rraitzaileak dira. Hauen koadroak jendeak gustora ikus-ten ditu eta askorentzat, gai-nera, pintura hori da, ez bes-terik.

Ez naiz Okinaren pintura baloratzen hasiko, bere tokia betetzen du. Argi daukadana zera da, oraingo gazteek, normalean, ez dutela Okina-ren margo bat etxean jarriko. Batzuk gurasoen gustoe-kin jarraituko dute, baina gehie-nek ez dut uste.

□ **Eta zure margoak e-txe batetan ikusten dituzu?**

Bai noski. Batzuk taber-natan jarri ditut eta dekora-tzeko ondo datozela irudi-

tzen zait. Ez dira klasikoak, inpresionistak, bainan oso ondo datoz espazioak deko-ratzeko.

Horrekin ez dut esan nahi nere koadroak etxeak edo ta-bernak apaintzeko bakarrik erabil daitezkeenik. Ez nuke nahi Txillida bezala buka-tzea. Bere eskultura tresna apaingarri hutsean bihurtu dute: toki guztietan topatzen duzu, oso polita delako.

Txillidak aspaldian ez du ezer berririk egin. Oteiza bere aldean sormen haundiagoko artista da, nahiz eta askotan txorakeria ugari esan. Zahar-tzaroa heldu zaio eta...

## Verdury Hall

Bergarako pintoreek os-pe handia izan dute eta dute Euskal Herri osoan. Han edo hemen, pintura lehiaketak antolatzen diren bazter guzti-etan bergarar artisten pre-sentzia beti izan da nabaria.

Manu Muniategiandikoe-txeak *Novelas* saria irabaz-terakoan, Bergarako margo-lari sarituen zerrenda handitu du: Simon Arrieta, Kutxu Ota-mendi, Pello Alberdi, Juanjo Altuna eta Jesus Mari Lazka-no pintura sailean eta Bittori-ano Larrañaga eskulturan, lehenago irabazle izanak dira Kutxak urtero antolatzen du-en lehiaketan.

Manuk zazpi urterekin e-kin zion pintatzeari ikastolan marrazki lehiaketa bat irabazi ondoren. Amaren aholkuei kaso eginez Mari Paz Alus-tizaren eskolan hasi eta han 14 urtera arte jardun zuen.

Handik merkatu zaharraren etxeko azkeneko pisuan ze-goen estudioa alde egin zu-en, eta beste margolari bat-zuekin (Bingen De Pedro, Jesus Mari Lazkano, Joxean Iza eta Juanjo Altuna, beste-ak beste) harremanetan jarri zen: «asko ikasi nuen han, esan daiteke nere garairik o-paroena izan zela» esan digu Manuk.

*Verdury Hall* izenaz eza-gutzen zen estudio hura jada ez da existitzen. Margolari bergararrak, toki aproposa-gorik ezean, gaur egun Irizar Jauregiko ganbaran dihar-dute lanean. Udalak tokiz al-datu eta gartzela zaharrean kokatu nahi ditu, nahiz eta leku egokiarena ez izan. Bitar-tean Simon Arrietaren dizi-puluek, euren sormenaren testigu izan zen *Verdury Ha-lla* gogoratzen dute...

nengoan paper zatietan mar-gotu eta bigarrenean koadroa osatzen hasten naiz. Behin zatika pintatu eta gero, ez dut gehiago pintzelik ikutzen.

Hasi nintzenez koadro inpresionistak egiten nituen, paisajeak batipat. Gero fakultatera heltzerakoan, gauza berriak egiten hasten zara eta konturatu gabe estiloz alda-tzen duzu. Orain neure eske-mak apurtu eta berriak sor-tzen saiatzen naiz, formulak apurtu. Gainditu behar diren hesiak balira bezala. Ez ditut ohizko formak erabiltzen. Koadro batek, begiratzean min egin dezala bilatzen dut.

□ **Eta jendeak artea u-lertzen du?**

Gehien-goak ez. Hor ba-daude tendentzia edo joera ezberdinak ere: minimalis-tek, esaterako, eliteko artea egiten dute, inor kontutan

**Euskalduna  
Taberna**

OSINTXU

**P. MANSO**

**Optika**

**OPTIKOA, OPTOMETRISTA**

IRIZAR IRILDEDEA 2 Tfnoa: 76 77 86 BERGARA

# San Kristobal: gidarien zaindaria

**Datorren asteazkenean, uztailak 10, San Kristobal eguna ospatzen da: gidarien patroia. Kotxe zein kamioi gidariek, hau da taxistek, autobus gidariek, transportistek, errekadistek eta auto eskolako maixuek, euren zaindaria den San Kristobalen eguna ospatuko dute. Galduaz doan ohitura bada ere, kotxeak, kamioiak, autobusak..., aurten ere lorez apainduta ikusiko ditugu uztailaren 10ean. San Kristobal auzora ere asko hurbilduko dira ibilgailuak bedeinkatzera.**

Istorioak dioenez, San Kristobal jendea ibaiaren alde batetik bestera pasatzen ibiltzen zen. Egun batean haur bat gainean zeramala eta errekaren erdian zihoanean, umearen pixua gero eta jasan ezinagoa egin zitzaion Kristobal haundiari. Ezin zaitut eraman esan zion haur txikiari. Ume hura... Jesus zen.

Istoriok alde batera utzita, San Kristobal beti eza-gutu izan dugu gidarien zaindaria: kamioi eta autobus gidarien, taxisten, errekadisten, transportisten edo eta gidarien eskolako maixuen zaindaria. Bera izan omen zen lehen transportista...

## Gidarien Eskolak

Normala denez gidari izateko karneta atera beharra

dago. Autogidarien eskoletan kamioi, autobus, kotxe edo motorrak gidatzen ikasten da, horregatik autoeskoletako langileek, beste gidariek bezala, San Kristobal eguna ospatzen dute uztailaren 10ean. Larrañaga eta Goierrik, Bergarako autogidarien eskolak, kotxeak loraz apaintzeaz gain ez dute jai berezirik egiten: "kontutan hartu behar da uda lan gehien edukitzeen dugun garaia dela; gazteak sasoi honetan etortzen dira batipat eta eurontzat ikastaro bereziak antolatzen ditugu. Behar bada aste bukaeran afariren bat egingo dugu".

## Gau eta egunez

San Kristobal gidari guz-tien zaindaria bada ere, kamioi gidariek inork baino gehiago estimatzen dute. Ez



dago kamioirik santuaren figuratxorik gabe. Bergaran garraio kamioien lau agentzia daude: La Guipuzcoana, Lurak Bat, Transgal eta Garitano. Autonomo lan egiten

duten beste hogeitamar kamionero izango dira. Aurten San Kristobal asteazkenean tokatzen dela eta, ez dute ezer berezirik antolatuko: "jai hartzea ezta pentsatu ere.



## LA GUIPUZCOANA

Paketeriaren garraioa eta banaketa.

Lantegi ezberdinei errekauek egiten dizkiegu, eta ezin dezakegu egun normal batetan jai hartu. Aste bukaeran afari bat egingo dugu" dioskue Bergarako garraio enpresa bateko langileek. Kamioia lorez jazteaz ez dira ahaztuko eta berria erosten den bakoitzean, San Kristobalera eramango dute bedeinkatzera.

Aste honetan gasolindegien grebak ez du eragin haundirik izan herriko garraioetan, Bizkaian zabalik egon bait dira. Baina horrelakoetan arazorik ez izateko gasolioz betetako kupel haundi bat daukate gordeta. Ofizioak duen gauzarik onenaz hitzegiterakoan, handik hona ibiltzeak ematen duen askatasuna aipatzen dute. Txarrena, berriz, egun guztia trafikokoan murgildurik egotea eta askotan gau eta egunez kamioian ibili beharra.

### Angiozarretik...


La Vergaresa autobus enpresak lur jo zuenetik Pesak hartu du lineako zerbitzuaren ardura. Honez gain, Angiozarren Rufino Muñoz,

Araba Autobusak enpresaren jabeak, Labegaraietako eta Tavesako langileak, Zornotza, Arrasate eta inguruko herrietatik Bergarara ekartzen ditu. Rufino ez da ahazten San Kristobal eguna ospatzeaz egun horretan jai hartu ez arren. Aurten, aurre rapenaz ospatu du jai bere lankideekin: "joan zen aste-

buruan egin genuen afaria... Aurten behar bada, autobusak San Kristobalera bedeinkatzera eramango ditugu, eta lorez apainduko ditugu, besterik ez". Ohiturak galdua doazela aitortzen du.

### Irizar Ibilbidean

Taxiena gainbeheran dagoen zerbitzua da. Garai baten lanbide oparotsua izan zenak ez du bere momenturik onenak bizitzen. Irizar Ibilbideko aldapan biltzen dira Bergarako 16 taxistak. Hori-



en artean Patxi Visitación taldeko zaharrena. 52 urte ditu eta 24 zituenean hasi zen kotxearekin haruntz eta honuntz. Harrezkero mila pasadizo bizi izan ditu eta bederatzi kotxe ezberdin erabili ditu: "gure gremioan elkartasun haundiegia ez dago.



San Kristobal egunerako ez dugu ezer berezirik antolatuko, bakoitzak berekasa ospatuko du. Nik neuk ere ez dut uste ezer egingo dudarik. Lehen fabrikari, Labegaraietan ere txofer ibiltzen bait naiz, bazkaria egiten genuen bainan aspaldiak ez dugu horrelakorik antolatzen. Ohitura ahazten doa".

### Errekauetan

Bergaratik egunero irtezen dira errekadistak euren

furgonetekin Donostia, Gasteiz eta Bilboruntz. Sei bakkari dira enkargoak alde batetik bestera eramaten dituzten bergararrak. Negozio familiarra da batez ere. Bilboko errekadistak, aurten ere uztailearen 10a heltzen denean lora sorta haundi bat jarriko dio bere furgonetari: "ez dut ohiturak ahazten, Gotzon Barrenetxea Arandonekoari urtero bezala lorak eskatuko dizkiot eta ibilgailua txukun asko jarriko du".

Bergarako errekadistak aipatzerakoan ezin dezakegu ahaztu urteetan Gasteizera joaten zen Bittorio Elkoro, Siglobeinte. Trenaz lehengo eta La Vergaresako autobusetan gero, Bergarako errekadistak ospetsuenean bihurtu zen.

Datorren asteazkenean, bakoitzak ahal duen neurrian bada ere, gidariek bere eguna ospatuko dute. San Kristobalek zaindu ditzen euren ibilgailuak loraz jantziko dituzte.

# EGAÑA GARRAIOAK O. E.

## Bergarako agentzia.

San Juan Erreka auzoa z/g • Tfnoa: 76 36 42 - 43 - 47 • Faxe 76 54 25



**ETXE-  
-AUNDI**

Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**CAMACHO**

- \* DROGERIA
- \* USAINDEGIA

BIDEKURUTZETA 24  
BERGARA. Tfnoa: 761335

## Zer iruditzen zaizu igerilekuak oraindik itxita egotea?



Cris Marchan  
18 urte

Gaizki. Ez zait ondo iruditzen egin duen eguraldiakin jendea hondartzara joan izan beharra, hemen piszinak edukita.



Aritz Aranguren  
18 urte

Urteroko kontua da. Beti azkenengo orduan obrak egiten ibiltzen dira. Lehenago ireki beharko lirateke.



Maritxu Ezpeleta  
56 urte

Gaizki, oso gaizki gainera. Kuota pagatu eta ezin joan. Obrak neguan egin beharko lirateke.



Alberto Urriolabeitia  
29 urte


Oso gaizki iruditzen zait. Uda aurrera doa eta oraindik itxita daude.

**M.  
OSINAGA**

- ✓ Etxeko erreformak
- ✓ Sukaldeko altzariak

Espaloia z/g  
Tfnoa: 76 29 85 / 76 00 57

## SANTOS - IRRATI-TB



- TB-Soinua-Bideoa
- Antena instalazioak
- Kanal Pribatuak
- Sukalderako altzariak
- Argiztapenak

Mahasterreka 2,

Tfnoa: 76 26 10

BERGARA



## Giza eskubideak

"Ley de la seguridad ciudadana" delakoak modan jarri du, berriz ere, estatu espainolean giza eskubideen gaia. Bai eskuinetik bai ezkerretik kritika eta desadostasun ugari jaso ditu: oinarrizko eskubideak zapaltzen dituela, inkonstituzionala dela, ea...

Baina badirudi demokraziaren aldeko borrokalari sutsu hauentzat giza eskubideak ez direla gizaki guztientzat berdinak, bestela nola uler daiteke oraindik estatu espainolean gertatzen diren eskubide hauen zapaltze sistematikoak.

Bururatu al zaie demokrata hauei lege antiterroristaren (epailearen baimen barik edozein etxetan sar daiteke polizia, inkomunikazioa komisaldegietan, ea...) babespean egiten diren zapalketa eta bortxaketan salatzea edo euskal preso politikoen egoera (dispertsioa, bisita ukatzea, jipoiak, ...), egoera tamalgarria eta jasan ezina salatzea?

Beraz, egin dezagun guztiok erreflexio txiki bat eta alderdikierietan erori gabe sala ditzagun gertatzen diren zapalketa guztiak, zeren "giza eskubidea" ez da merkantzia politiko bezala erabil daitekeen gai bat, hori baino garrantzitsuagoa bait da.

**Mikel Elkoroberezibar**



## Baserritik kalera

Gurasoak San Kristobalgoak ditudanez, bergarra naiz "ama-euskalkiz eta amamarenean ikasitakoa eta kaleko lagunek hitzegiten dutena konparatzeak, gogoeta franko egin arazi dit euskalkiak belaualdiz belaualdi eta baserritik kalera izan duen galera eta aldaketari buruz. Beste leku batzuetan ere bai, baina Bergaran, ezagun-ezagun da nor den kaletarra eta nor baserrikoa (gero eta gutxiago, zoritxarrez). Auzo batetik besterako aldaketen gaineratik dago ezberdintasun hori eta gaurko umeen artean entzuten diren aditz-perlak -"balinda", baleikedozu" eta antzekoak aparte utzita, asko kezkatzen nauen kontua da. Beti somatu izan ditudan ezberdintasun batzuk botatze-arren: azentua berdintsua da, baina markatuagoa kaletar-rengan. Aditz laguntzaileetan, "etorri gaa" "etorri gaz" bihurtu da, eta bustidurari dagokionez, "aitta" "aitxa" esaten da "sarritan" ("sarritxan"). Eta horrela beste asko.

Baserrian hazitako edozein umeren hizkuntza ikastolan hasitakoan zela aldatzen eta hiztegi aldetik zela pobretzen den eta nagusi askorena nola kaletartu den ikusi besterik ez dago, beharbada intuizio hutsez papereratu dudan gai honen garrantziaz jabetzeko. Eta seguru norbaitek esango duela, "hik zer dakin zein dan Bergarako euskaria?" Horixe pentsatzen jarrita nago neu ere, inork ba ote dakien esaten. Baina gure amama Juanitak ederki asko egiten du, "halako, zela esaten dozu?" galdetutakoan "ez dakit, bada..." erantzun arren.

**Arantzazu Loidi**

# ARREGI

Eraikuntza  
materialeak

Biltegia Teilerian Tfnoa: 76 27 93  
Labegarieta Auzoa

# M U G I C A

## BURDINDEGIA

Bidekurutzeta 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA

# AGOITZ


## TAPIZDENDA

San Lorentzo 25 Tfnoa: 76 11 58  
BERGARA

# INFERNUKUA TABERNA

Mahasterreka 23

Tfnoa: 76 18 49



**23. Nola almagazatu behar dira ardoak?**

Edozein ardorentzat, baita merkeentzat ere, ona da edan aurretik, egun batzutan gelditu edukitzea. Beraz, eros itzazu edan baino egun pare bat lehenago, edo ahal baduzu aurretik. Ardoa leku ilunetan izatea komeni izaten da argiak hondatu egin lezake eta. Leku ilun eta lehorrean, aireatuan, baina haizerik eta dardararik izango ez duen tokian. 12-15° inguru da tenperatura egokia.

Ez da ona ardoa, batez ere bisduna, frigorifikoa

sartzea, bere gustoa galdu dezake eta.

Mahairako ardoak etzanda eduki behar dira kortxoak bustita egon dadin beti. Oporto, Jerez, eta antzekoak, ostera, zutik almagazatzen dira.


**24. Zer eskatzen dute IVEFen sartzeko?**

EKI (Euskal Kirol Institutua) edo IVEFeko sarrera frogetan hiru arlo baloratzen dira: selektibitateko notak, euskara eta proba fisikoetan lortzen diren markak. Hiru

arlo horiek globalean kontutan hartuz erabakitzen dira sartzen direnak, kopuru mugatua bait dago.

Proba fisikoetan bederatzia ariketa desberdin egin behar dira: igeriketa, jauzi bertikala, oztopo lasterketa, baloi jaurtiketa, baloi egokitzea, 50m.ko lasterketa, bero flexioa, gorputz flexio handia eta "course navette" deitutakoa (begiratu 1. irudia). Aipatutako ariketa guztietan gutxieneko marka batzuk gaudituz behar dira baina ez du hemen marka horiek

ematerik merezi, ez direlako konpetizioko proba normalak. Igeriketa, oztopo lasterketa eta halakoetan ere probak ez dira konpetiziokoak bezalakoak. 50 m.-ko lasterketa da ariketa "normal" bakarra. Bertan eskatzen duten marka hau da: 7' 60 segundu gizonetzkoentzat eta 8' 40 segundu emakumetzkoentzat. Proba fisiko hauei buruzko informazio gehiago nahi duenarentzat EKI-k liburuska bat dauka. Bertan azaltzen da zehatz mehatz nola burutzen diren.



1 Irudia

**Gorputz flexio handia**

Gorputza flexionatu eta hanka artetik bernak ahalik eta atzeren eraman behar dira erregelaren kurtsorea ikutu eta bultzatuaz. Geldi egon harik eta marka irakurri arte. Eskatzen den marka, gizonetzkoen 27 cm. eta emakumetzkoen 29 cm.

(Informazioa: EKI)

**UBERA**  
BERGARA Tfnoa: 76 25 99

**KIZKUR**  
Ileapaindegia  
Solariuma  
Bolu 51 Tfnoa: 76 50 32 BERGARA

**IRAKASLE ESKOLA**  
Eskoriatza  
Gipuzkoa

Irakasle Eskola honek zera jakin arazten du:  
**1991-92 ikasturterako aurreinskripzio-epaia zabalik dagoela, uztailaren 18rarte.**

**Espezialitateak:**

- ZIENTZAK
- HAUR-ESKOLA
- EUSKAL FILOLOGIA
- INGELES FILOLOGIA

Informazioa: Irakasle Eskola. Tfnoa: 943 / 79 04 40.  
Ordutegia: 9.00-13.00




□ **Odriozolatarrak Loiolan**

Odriozola abizena duten bi mila lagun inguru bildu ziren joan zen igandean Loiolan izandako bazkarian. Loiolako Ignazioren V. mendeurrenaren ospatzea aprobetxatuz, Odriozolatarrak Azpeitian bildu zitzaizkigun, 1610. urtetik santu honen zaindaritzapean baitdaude eta abizena ere jatorriz Azpeitikoa omen da. Basilikan meza entzun ondoren herri-kirolen erakustaldia izan zuten, batez ere Cuba, Chile edota Uruguaytik etorritako jendearentzat prestatua; bazkarian berri, aurkezpenak izan ziren nagusi. Odriozola Sendi Elkartearekin osatu dute, beraien arteko loturak mantendu eta elkarri laguntzeko asmoz. Hor argakian, Bergararik joandako ordezkariak.




Zertan dihardute ba?

**ASIER ALTUNA "Kixi"**



22 urte, bergararra, Kultur Etxeko bideo gelaren arduradun berria dugu ETBra doakigun Nerea Ibaeren ordeiz. Kixik Andoango Zine eta Bideo Eskolan ikasketak burutu ditu eta azken hilabeteotan Euskadi Irratian kontrolista lanetan aritu da.

**RAMON OSINAGA**



Valladoliden Filologia Erromanikoan lizentziatutako 39 urteko arrasatear hau Batxillergo Institutuko zuzendari berria dugu. Ramonek, azken hiru urtetan Latin eta Grekerazko klaseak ematen ditu Bergarako Institutuan.

□ **Tourrera!**

Larunbat honetan Frantziako Tourraren edizio berri bati hasiera emango zaio Lyon-en. Aurten ere Bergarako zaletu asko izango dira Pirineo edota Alpetetako etapa menditsusak ikusteko asmoz mugaz bestaldera joango direnak. Bergararik irteerarik antolatzen ez den arren, Arrasateko bidai ajentzien bitartezuztailaren 19an Pirineotan jokatu den etapa ikusteko autobusez joateko posibilitatea dago.




□ **Omenaldia**

Joan zen ostiralean Lanbide Heziketa Eskolako irakasleek omenaldi bat eskeini zioten 25 urte klaseak ematen daramatzan Anjel Gallastegiri. Zumelagan izandako bazkarian, Anjelen gurasoak eta Lanbide Heziketan irakasle izandako hainbat lagun ere izan ziren. Guztiek 18 urterekin elektrizitate praktikak ematen hasi zen bergarar hau omendu nahi izan zuten.



**FS**  
oto sistema

Tfnoa: 76 00 50 **ARGAZKIAK ORDUBETEAN** Tfnoa: 76 00 50



**KONDE**  
PANADEROKUA  
Burdiñate 1  
BERGARA

## Hau dok barreguria

Aspaldi pasatutakoa da. Gau euritsu baten badator motorrian "Buru" deitzen zotsen Elgetarra Mondragoe aldetik Bergaruntz; itxuria txikito mordua jota zetorren gizona eta Ola baiño lehenago, Salgumendiko zubixan, blausta, ibaira zuzenian. Oinezko bat tokau zan parian eta laguntzera joan jakonian han topau zeban "Buru" sekulako gaztaikuakin, konortia erdi galduta.

- Ze moduz hago?

- Ni ondo, baina bestia?

Lenengo pasau zan kotxia geratu eta zentzora e-ruan zeben, "nun dago bestia, bestia, bestia..." esaka eta esaka.

Guardazobillei, bonberuei eta inguruko baserri-tarrei deittu, linternak eta farolak hartu eta ibixa errejstatzen hasi zien "Buru"-ren "beste" lagunan bila. Zentzuan be "bestia, bestia, bestia" jarraitzen ei zeban. Bi egunian jardun zeben sasixak, osiñak, presak eta ifundienak harrotzen. Es-



kerrak, konortia etorri jakonian "bestia" esan biharrian, "Vespa" (Vespa) esan nahi zebala konturatu zirenai. Bestela oindio be San Prudentziotik Debaraiñoko erreka baztarrak aztertzen jardungo giñuan.

\*\*\*\*\*

- Gure mutikua Sanson baiño inddartsuaua datorrela esango neukek. Bost urte besterik etxauzkak eta hama-bost kilo errez jasotzen jittuk.

- Ba ez pentsau guria be makala datorrenik. Hiru hilla-bete besterik etxauzkak eta gabian bururatzen jakon ba-koitzian etxeko danok altaz-zen gaittuk eta batzutan au-zokoak pe bai.

J. M. Elexpuru

## Aintzinako San Pedroak

Bezperan iluntzian sabia egoten zen. Eta salberako etortzen zien kriau eta kriada zeren danak eren etxeetara. Eta han eren ongi-etorrixak eñ alkarrri eta gero salbera. Salbetik ertendakuan pasakallia kale danetik, hasi Beko Plazan eta Bidekurutzera. Gero Bidekutzian bi pieza jo, "toketak" esaten gontsan, ta goiko Plazara, ta goiko Plazatik kuar-tera, Azkonaneko aurrian beste bi pieza.



Haretzek zien jaixak, eta alegriak gaiñera e, alegriak. Eta gero akabatzen zan haura plazan eta han be eñ ipursalto batzuk eta tira, konforme danok.

San Pedro egunian, lenengo danboliña kleik kale goizian, diania, eta gero bandiak eitten zeban rekorridua; gero meza nausittara. Aiuntamentua "en corporación" joaten zan. Eta handik bandiak aiuntamentura. Han luntxa eitten zeben. Eta konziertua, baiña konzierto haundixa, bandiana.

Atsaldian erromeixia Goiko plazan eta San Pedro kalia. Hiru soiñu jenero egoten zien: Dultziña juzgauko aurrian egoten zan, eta panderua eta horrek oiñ Batzokixa dauen aurrian. Eta juzgauan goixan, gaur eztakitt zela dauen, eskillerak igo ta han terreplen haretan, bandia. Eta gu danok han behian dantzan. Edarki jiratzen giñan.

SOTERA GALLASTEGI

"Bergarako Euskera" liburutik aterata

# Zuhaitzi

AFARIAK: Asteburuetan

Aste barruan enkarguz

Espaloia 6 Tfnoa: 76 59 22 BERGARA

# ayastury

## JANTZIDENDA

BARRENKALE, 30

Tfnoa: 76 22 68

BERGARA

# GURIA

## TABERIA

Bidekurutzeta 5,  
Tfnoa: 76 20 34

# LONBIDE

## OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA



## Goi mailako karateka


Mekolalde auzoko Pablo Ferreira Gipuzkoa eta Euskadiko jubenil mailako karate txapelduna dugu. Pablok maiatzean Euskadiko txapela lortu zuen Bilbon eta orain Antzuolan jokaturako Gipuzkoako Txapelketa eskuratu du.

Giartzu gimnasioan entrenatzen duen 15 urteko mutil honek zinturoi urdina lortu du jadanik eta Josean Iñarraren agindutara ordubete entrenatzen du egunero karatea eta pisu saioak tartekatuz. Txikitatik gustokoa zuen arren, orain 5 urte hasi zen karatea praktikatzeko eta orain Espainiako txapeldun izatearekin ametsetan egiten du.



## Biak lider

Anjel Bideluzek eta Alex Elizburuk karrera bikaina burutu zuten joan zen igandean Arrateko Igoeran. Anjelek 3 minutu eta 18 segundu behar izan zituen 6 kilometroak betetzeko, 500 cm. kubikotako kategorian eta sailkapen orokorrean ere garaipena eskuratu. Alex, 3 minutu eta 29 segunduko denboraz, litro laurdeneko kategorian bigarren eta sailkapenean seigarren izan genuen. Biak Euskadiko Txapelketan beraien kategoriako liderrak ditugu.



## Euskadiko onenak

Patxi Arozena donostiarra gizezkoetan eta Bergaran bizi den Beatriz Jimenez arrasatearra emakumezkoetan izan ziren Euskadiko II. Kirol Eskaladako txapeldunak joan den larunbatean Bergaran. Bergararrak ere bikain aritu ziren finalean; Aitor Payrosek bigarren postua eskuratu zuen eta Josean Mulas seigarren sailkatu zen. Guztira, gizezkoetan, 40 eskaladorek parte hartu zuten eta emakumezkoetan berriz, hamarrek.

Bestalde, 16 urterarte beragar gaztetxoentzat prestatutako proban Iñigo Mujikak lortu zuen garaipena, bigarren Eneko Igartua izan genuen eta hirugarren, Unai Beitia.

### □ Zikloturistak

Angiozarko txirrinduzaleek antolatutako, bihar larunbata Angiozarko V. Zikloturista buelta korrituko da. Irteera goizeko zazpiak eta laurdenetan auzo horretako plazan emango zaio eta txirrindulariek 150 km-tako ibilbidea bete beharko dute. Buelta amaitzean, ordu biak aldera, partehartzaileek indarrak errekuperatu ahal izango dituzte Angiozarren egingo den bazkarian.

### □ Merino, primeran

Antonio Merino antzuolarrak, igandean Burdeos Euskadiko selekzioarekin parte hartu zuen lehiaketan, 8 minutu eta 18 segunduko denbora lortu zuen 3000 metroan, Gipuzkoan inoiz lortutako onenetarikoak. Merinok asteburu honetan Mendizorrotzan jokaturako diren Euskadiko Atletismo Txapelketetan 1500 metroko proban parte hartuko du.



# ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



**E**z da atzo goizekoa erretratu hau ere, baina mende erdia pasatu zaien bergarar askok eta askok ezagutuko dituzte bertan agertzen direnak. Orain Banco Santander dagoen lekuan kantina bat zuen Delfin Montoyak.

Kantina haren aurrean ageri zaigu gure kuadrila. Han atzean, justu justu ikusten dela, Katabia etxea eta ezkerretara agertzen den aterpea astotokia, baserrietatik kalera etortzen ziren astodunentzako debaldeko "parking"-a. Gaur baino atasko gutxiago zeuden garaiak ziren. Erretratuan agertzen direnak, **ezkerretik eskumara**: Delfin Montoya, Inazio Murua (Rapidillo),

Eugenio Agirre (karamelerua), Luis Ugarte (Txantxinku), Enrike Durana, Ostolaza, Mazurriaga (Marki), Pablo Ibarra, Zezeaga, Isidro Alberdi, Bitoriano Arriaran eta Ezekiel Urriategi (Sakristauanekoa)

*Estepan Plazaola*

*Informazio eta argazkia: Elisa Ugarte*

**LASAGABASTER JANTZIDENDA**

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabala

Gabiria 9, Tfnoa: 79 27 27 - 79 13 55 ARRASATE

## Oharra:

Orrialde honetan iragarkiak ez dira ordaintzen.



### ETXEBIZITZA

- Pisu bat alokatzen dut Martokuan. 761460
- Pisua salgai Koldo Elizalde 20an. Deitu gaueko 20etatik aurrera 764252
- Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Pisua alkatzen da Bolun. Tfnoa: 763797.
- Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.
- Pisua salgai; garaje eta guzti. 763911.
- Baserri bat hartuko genuke alokairuan. Tfnoa: 763431.
- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.

### LANA

- Eraikuntza materialen biltegi baterako errepresentantea behar da. Deitu lan orduetan: 760141.
- Neska euskaldun bat behar da etxeko lanetarako. Mesedez fundamentoduna. 760180 Tfno.a.

### DENETARIK

- Mutiko baten txaketa urdin bat, (10 tailakoa), aurkitu genuen, aurreko zapatuan, hilak 15, Irizar-ko Bodegoiaren inguruan. Deitu 761781 tfno.ra.
- Lau hilabeteko Siberian Husky Txarra galdu da.

Kanela kobrea, betondo zuria eta begi urdinak ditu. Deitu 761479 tfno.ra. Eskertuko da.

• Doberman bat galdu da. Deitu 761479 tfno.ra.

### SALDUEROSI

- Paseo bizikleta arrosa bat salgai, sesto eta guzti. Deitu: 761241 tfno.ra. Idu-rregatik galdetu.
- 28 urteko pinudia salgai. Terreno eta guzti. 76-1201.
- Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 862071era.
- Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorrea, 3 pulgadako disketera, 30 joku eta oso merke. Tf-

noa: 908171883 (Kotxekoa)

• Renault 6 edo antzerakoa erosiko litzateke. Deitu 762386 tfno.ra gaueko 10.00etatik aurrera.

• Karrerako bizikleta polita eta arina salgai. Ez da garestia. 763269.

• Reflecta Diamator AF diapositiba proiektorea salgai. 762230 gaueko 9etatik aurrera.

• Hiru urte dituen Mobyette bat salgai. Prezio ona. 763276.

• 7 pertsonentzako algo-doizko kanping bat salgai. Prezio Interesgarria: 7616-34 Arantzagatik galdetu.

• Vespa 200 salgai egoera onean. Prezioa 180.000 pzia. Deitu 761639 tfno.ra.

## Hildakoak

**Eusebio Errasti Arriola**

75 urte.

**Luis Santamaria Peña**

50 urte.

**Maria Elorza Izurrategi**

89 urte

**Jose Mari Aranes Inza**

68 urte.

## BERRIGARA

Eskatu eta etxean



76 03 97

## TOKI-EDER

**Taberna**

**Pintxoak eta eguneko bazkariak**

Artzamendi Tfnoa: 765184 BERGARA

## AUTOPULLMANS ARABA

**Autobusak**

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

Beherapen handiak

**BIZIKLETA** modelo guztietan  
lokala berritzeagatik



**AUKERAKO PREZIOAK**  
**BRUNET MERKATALDENDAN**

UZTAILEAN

**STOCK-A**  
**AGORTU**  
**ARTE**

**Zatoz ikustera!**

Ozaeta, 11-13  
Tfnoa.: 76 31 52



## **ASEGURU ARTEKARIAK**

- |                              |                         |
|------------------------------|-------------------------|
| ✓ Etxeko arrisku askotarakoa | ✓ Pentsioetarako planak |
| ✓ Garraioak                  | ✓ Istripuak             |
| ✓ Autoak                     | ✓ Subsidioa             |
| ✓ Komunitateak               | ✓ Komertzioak           |
| ✓ Bulegoak                   | ✓ e.a.                  |

D. Fleming 3, BERGARA TFNOA: 76 15 24

BERGARA Kalea 2, 1. DONOSTIA